


Mugikortasun seguru eta jasangarriaren unitate didaktikoa
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa

Bizikletan



PERTSONA
HELBURU

EUSKO JAURLARITZA

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza



COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

Aurkezpena

Ezer baino lehen, eskerrik asko ikasmaterial hau erabiltzeagatik. Espero dugu baliagarria izatea ikasleak bide-segurtasuneko gaietan hezteko.

Irakasle zaren aldetik, funtsezkoa da zure ekarpena baterako lan pedagogikoan, ikasle belaunaldiak gure kaleen eta errepideen bide-segurtasuneko eta bide-segurtasunaren balioetako, eskubideetako eta betebeharretakoz hezkuntza jasotzeko. Hala, aldi berean, ohitura seguru eta arduratsuak eskuratuko dituzte, oinezko, garraio publikoaren erabiltzaile, ibilgailu pribatuetako bidaiari eta txirrindulari hasiberri diren aldetik.

Beharrezkoa da haurren artean talde-kontzientzia sustatzea eta txikienek mugikortasunari buruz gogoeta egitea, oinezko, txirrindulari eta garraio publikoaren erabiltzaile diren aldetik. Zalantzarik gabe, oinarritzeko prestakuntza hori funtsezkoa izango da gure herrietan eta hirietan mugikortasun seguru eta jasangarria sustatu eta sendotzeko.



Gure ardura politikoentzat eta administratiboentzat laguntza handia da zuen ekarpen pedagogikoa, bai istripuak ekiditeari dagokionez, bai istripu-tasak murrizteari dagokionez. Bitarteko naturala eta garrantzitsua zarete belaunaldi berriak kaleak eta espaloiak, autobideak eta errepideak, bidegorriak, garraiobide publikoak edo pribatuak, banakakoak edo kolektiboak, partekatzen ditugun erabiltzaileon arteko begirunean hezi, eta egungo zein etorkizuneko mugikortasuna seguruagoa, adeitsuagoa eta arduratsuagoa izan dadin.

Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzan irakatsiko dituzuen Segurtasun Sailaren Trafiko Zuzendaritzak atondutako hezkuntza-unitate hauek baliagarriak izango zaizkizuelakoan nago, egunez eguneko lan pedagogikoan laguntza praktikoa izateko sortu direnez.

Eskerrak ematen dizkizuet lan pedagogiko horregatik.

Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz

Segurtasuneko sailburua

Sarrera

Programazio honen asmoa da bizikletaren erabilera sustatzea, garraiobide seguru eta jasangarritzat. Azken urteotan, Euskadin ugaritu egin dira bidegorriak, eta zabaldu egin da garraiobide hori erabiltzeak osasunerako eta ingurumenerako dakartzan onuren kontzientzia. Hala ere, oraindik hobetzeko daude bizikletak ingurunearekin —bereziki, oinezkoekin— izan behar duen bizikidetzari dagozkion zenbait gai, eta sustatu egin behar da txirrindularien kolektiboak bere kalteberatasunaz duen kontzientzia.



Programazioa jardueretan egituratuta dago. Honelako fitxetan jaso dira jarduerak:

Izenburua:

Jardueraren izenburua

- Eskola curriculumeko arloak: atal honetan adierazten dira estuen loturiko eskola curriculumeko arloak.
- Agenda 21eko gaiak: jarduera honetan landu diren Agenda 21eko gaiak adierazten dira.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak argitaratu duen Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen gida liburuak gaitasuna adierazten da.

Helburuak:

✓ Jardueraren helburu pedagogikoak.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Proposatutako jarduera egoki gauzatzeko behar diren informazio eta kontzeptuak zehazten eta azaltzen dira hemen.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Proposatutako jarduera nola egin, hezitzailearentzako jarraibideak emanda.

Eranskinak:

Jarduera egiteko behar diren dokumentuak.
Batzuetan, Trafiko Zuzendaritzako Baliabideen Katalogora daramaten estekak dira eranskinak.

Emaita:

Dokumentuak, jardueran egindako materialak, eta azken ondorioak.

Argibide eta baliabide gehiago:

Jarduerari eta haren edukiari lotutako bibliografia, interesa duten estekak edota dokumentuak.

Aurkibidea

SENTIBERATZEA 06

- 1. 75. autobusa 06
Eranskina: 75. autobusa

DIAGNOSTIKOA 09

- 1. Bizikletaz 09
Eranskina: Argazkia
- 2. Behatzen dut, beraz aztertzen dut! 12
Eranskina: Behaketa taula
- 3. Denbora 15
- 4. Bizikletentzako oztopo pista 17

EKINTZA PLANA 20

- 1. Bizikletak alokatzen ditugu 20
Eranskina: Negozio planaren eredua
- 2. Bidegorria 22
- 3. Esperimentuak 24
- 4. Ibilaldia bizikletaz 27
- 5. Hondartzara bizikletaz 29
Eranskina: Kasua: Hondartzara bizikletaz
- 6. Adituen lantegia 31

EBALUAZIOA 32

- 1. Horma-irudiak 32
- 2. Trukea 34

ERANSKINAK 35

SENTIBERATZEA

1. 75. autobusa

Izenburua:

75. autobusa

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Aisia - Garraio eta mugikortasun jasagarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Egokitzapena eta malgutasuna.

Helburuak:

- ✓ Dugun denbora nola erabiltzen dugun hausnartzea.
- ✓ Patxadaz joan behar dugula eta presaka ibiltzea saihestu behar dugula ohartzea.
- ✓ Eztabaidatzea ea egiten ditugun joan-etorriak aisialdiko eta aurkikuntzako uneak izan daitezkeen.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Gure jarduerak egiteko joan-etorrietan, gero eta denbora gehiago ematen dugu. Askotan, denbora hori jarduera batetik bestera bitarteko trantsiziotzat hartzen da. Horregatik, batzuetan denbora galdua dirudi. Tarte hori, baina, aisialdi bihur dezakegu (musika entzunez), gizartekotzeko aldi (laguntzen diogunarekin edo laguntzen digunarekin hitz eginez), eta abar.

2003an, Euskadiko Denboraren Erabileren Inkestak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek batez beste egunero ordubete eta 8 minutu eman zituzten joan-etorrietan. Kopuru hori Europakoa baino handixeagoa da; izan ere, europarrek egunero ordubete ematen dute joan-etorrietan batez beste.

SENTIBERATZEA

1. 75. autobusa

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK

Hezitzaileak ipuina banaka edo taldean irakurtzea proposatuko die. Gero, galdera hauek egingo ditu:

- Zer iruditu zaizu istorioa?
- Uste duzu joan-etorrietako denbora denbora galdua dela? Arrazoitu ezazu zure erantzuna.
- Toki batetik bestera zoazenean, etxetik eskolara, edo parkera, edo beste edonora, presaka joaten zara? Las-

terka joaten zara, ingurura begiratu gabe? Adi joaten zara, gauza berriak ezagutzeko? Askotan gelditzen zara jendearekin hitz egiteko edo inguruneari behatzeko?

- Inoiz gertatu al zaizu, toki batetik bestera zoazela, gauza interesgarriren bat ezagutzea edo aurkitzea?
- Zure ustez zer irakaspen dakar ipuin honek?

Eranskinak:

- 75. autobusa ipuina (egilea: Gianni Rodari).

SENTIBERATZEA

1. 75. autobusa

Emitza:

Ipuinaren ondorio posibleak:

- Presa izatearen sentipenak, arreta-galtzeekin batera, istripu asko eragiten ditu.
- Segurtasun aholku bat: irten zaitez garaiz, ibilbidea patxadaz egin ahal izateko.

- Patxadaz joatearen abantaila batzuk: ibilbideaz gozatzea, behatzeko eta paseatzeko astia izatea, bidean aurkitzen ditugun pertsonekin hizketan aritzeko aukera, eta abar.

Argibide eta baliabide gehiago:

- www.eustat.es

Denbora-aurrekontuen inkesta. Mugikortasunaren eta joan-etorrien monografikoa. 2006. Euskadi.

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

DIAGNOSTIKOA

1. Bizikletaz

Izenburua:

Bizikletaz

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Eskola eta herria - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Kontziente izatea, bizikleta ibilgailu jasangarri bat dela.
- ✓ Bizikleta garraiobide jasangarritzat identifikatzea.
- ✓ Bizikletaz ibiltzeko beharrezko diren segurtasun neurriak ezagutzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Bizikleta ibilgailu bat da. Horrenbestez, zirkulazio arauak errespetatuz erabili behar dugu, gerta daitezkeen istripuetatik geure burua babestuz, eta ibilgailua egoera onean mantenduz.

Euskadin 120.000 lagun baino gehiago irteten dira bizikletaz ibiltzera asteburuetan.

Bizikleta garraiobide jasangarria da, baina segurtasun neurriak behar ditu, txirrindularia oso kaltebera baita (min handia har dezake, istripurik izanez gero). Trafiko

asko dabilenean galtzadatik ibiltzeak istripua nozitzeko arrisku handia dakar.

Bide Segurtasunaren Legean (2014ko maiatzaren 9an eguneratua), edonolako bidetatik bizikletaz ibiltzeko, kaskoa jarri beharra ezarri zaie 16 urtez beherakoei. Gogoan izan: errepidean bizikletaz ibiltzeko, kaskoa nahitaezkoa da guztientzat, edozein adinetakoa izanda ere.

DIAGNOSTIKOA

1. Bizikletaz

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak galdera hauek egingo dizkie ikasleei:

- *Zuetako zenbatek dakizue bizikletaz ibiltzen? Zenbatek duzue bizikleta? Noiz erabiltzen duzue egunero?*
- *Non erabiltzen duzue, zer motatako tokitan (parkea, bidegorria, espaloia...)?*
- *Aurrez definitutako ibilbide bat egiten duzue, ala ibilbidea inprobisatzen duzue?*

Solasaldi labur baten ondoren, eranskinean doan argazkia erakutsiko du hezitzaileak, eta ikasleek, talde txikietan, argazkian ageri den egoerari buruzko iruzkina egingo dute.

- *Zer elementu daude argazkian?*
- *Zer sentipen sortzen dizue? Lasaitasuna, estresa, arriskua, normaltasuna eta abar.*
- *Bizikletan egiten dituzuen joan-etorriak argazkikoaren antzekoak al dira?*
- *Zer antzekotasun eta zer ezberdintasun daude?*

MUGIKORTASUN JASANGARRIA:

Ikasle talde batek beren udalerrian joan-etorriak bizikletaz egitearen abantaila eta desabantailen zerrenda egin-

go du, argazkian eta beren esperientzian oinarrituta.

Beste ikasle talde batek beren udalerrian joan-etorriak autoz egitearen abantaila eta desabantailen zerrenda egingo du.

Beste ikasle talde batek beren udalerrian joan-etorriak oinez egitearen abantaila eta desabantailen zerrenda egingo du.

Udalerrian garraiobide gehiago baldin badago, horiek ere aukera daitezke.

Zerrenda guztiak egindakoan, hezitzaileak proposatuko du guztiek elkarrekin azter ditzatela:

- Ikasleek azalduko dute zer garraiobideri esleitu dizkionten abantaila gehien, eta zein garraiobideri desabantaila gehien.
- *Zer motatako abantailak dira (merkeagoa izatea, denbora aurrezte, egiten den ariketa fisikoaren kantitatea, aspergarritasuna...)?*

DIAGNOSTIKOA

1. Bizikletaz

Nola egin:

- *Guztien onerako abantailak dira (naturarentzat, udal-erriarentzat, eskolarentzat...) edota banakoentzako abantailak dira (ni ez nekatzeko, nik dirurik ez gastatzeko, eta abar)?*
- *Eta desabantailak, zer motatakoak dira? Desabantaila orokorrak ala banakoentzakoak?*

MUGIKORTASUN SEGURUA:

Lantalde txikietan, ikasleek argazkiko istorioa osatuko dute, ondorengo galdera hauen erantzunak asmatuz, eta bere helmugara iristea irudikatzen duen kartel bat marraztuko dute:

- *Nondik dator? Nora doa?*
- *Deskriba ezazue zuen ustez nola sentitzen den ar-*

gazkiko pertsonaia, une horretan.

- *Zer segurtasun neurri hartu ditu, bizikletaz irten baino lehen?*
- *Bizikletaz ibiltzean, zuen ustez istripua izateko zer arrisku maila du: handia, ertaina ala txikia?*
- *Uste duzue segurtasun neurriek (adibidez: kaskoa jarrita izatea) arriskua kentzen diotela egoerari?*
- *Nola eta noiz iritsi zen bere helmugara? Onik eta osorik iritsi zen? Nola sentitu zen iritsi zenean?*

Talde bakoitzak bere kontakizuna irakurriko du, iritsiera-ren marrazkia erakutsiko du, eta kontakizunen eta marrazkien arteko ezberdintasun eta berdintasunei buruzko iruzkina egingo dute.

Eranskinak:

- *[Argazki bat](#), Albaceteko Diputazioak argitaratu duen eskola mugikortasun jasangarri eta seguru baten aldeko hezkuntza gidatik aterea. Agenda 21.*

Eraitza:

Hirian zehar bizikletaz joateari buruzko kontakizunak eta marrazkiak

Argibide eta baliabide gehiago:

- *[Bizikleta hirian](#).*
 - *[Guía Educativa por una movilidad escolar sostenible y segura de la Diputación de Albacete](#). Agenda 21.*
- Ekologistak Martxan taldearen bideoa:
- *[Una bicicleta que cambió el mundo](#).*
 - *[Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa](#).*

DIAGNOSTIKOA

2. Behatzen dut, beraz aztertzen dut!

Izenburua:

Behatzen dut, beraz aztertzen dut!

- Eskola curriculumeko arloak: Matematika - Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa - Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Oinezkoen eta txirrindularien jokabide segurua eta ez-segurua behatzea.
- ✓ Eskolaren inguruetan oinezkoentzako eta txirrindularientzako arriskuak identifikatzea.
- ✓ Jokabide arriskutsuak izatera garamatzaten arrazoiez eztabaidatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Ingurunea behatzeak eta haren inguruko elementuak aztertzeak zer testuingurutan bizi garen hobeto ulertzen laguntzen digute. Behaketa datuetara eta informazioe-tara bihurtzeak ingurunea ezagutzeko aukera ematen digu, bai eta errealitatean oinarritutako erabaki arrazoi-tuak hartzeko aukera ere.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak 3-4 laguneko talde txikiak antolatuko ditu. Talde bakoitzak argazki kamera bat izango du. Posible ez bada, kamera bakarra erabil daiteke, taldeen artean txandakatuz, guztiek gutxienez argazki bat egin dezaten.

Bide ingurunea eta haren konplexutasuna ezagutzeak ingurune horretan kontuz ibiltzen lagunduko digu.

Talde txikietako bakoitza gune estrategiko batean ja-rriko da, eskolaren ingurumarietan, toki seguru batetik oinezkoen igarobide bat eta bidegorri bat behatzeko. Taldeek 15 minutuz behatuko dute, eta honekin batera doan taula betez oharrak hartuko dituzte.

DIAGNOSTIKOA

2. Behatzen dut, beraz aztertzen dut!

Nola egin:

Gainera, ikusten dituzten jokabide ez-seguruen eta atzematen dituzten arriskuen argazkiak egingo dituzte (gutxienez bat). Adibidez: galtzada diagonalean zeharkatzea, bizikletaz dabilela mugikorretik hitz egitea (zirkulazio kodean debekatuta dago).

Ikasgelara itzulitakoan, hezitzaileak ikasleei proposatuko die behaketan bildutako informazioaren azterketa zehatza egin dezatela, jarduera hauek eginez:

- *Kalkulatu eta eztabaidatu lortutako emaitzen ehunekoak. Behatutako kasu guztietatik, zer ehunekok egin ditu jokabide arriskutsuak? Eta seguruak? Zein da ezberdintasunaren arrazoia?*
- *Hautatu behaketetako bat, eta marraztu hura irudikatzeko grafiko bat. Esaterako, behatu dituzun pertsona guztien datuak hartuta, marraz ezazu grafiko zirkular bat, kalea behar bezala zeharkatu zutenen ehunekoa eta gaizki egin zutenen ehunekoa islatuko dituen.*

Hezitzaileak agerian esekiko ditu grafikoak, eta guztien artean iruzkina egingo da. Gero, eztabaida proposa-

tuko da, antzeko bide egoeretan eurek nola jokatzeko duten. Eztabaidarako egin daitezkeen galderak.

Bizikletaz:

- *Zuek beti errespetatzen duzue semaforoa?*
- *Espaloitik ibiltzen zarete? Galtzadatik?*
- *Zuen ustez, zer zirkulazio arau dira zuei eragiten diuzutenak, bizikletaz zabiltzatenean?*
- *Zer gomendatuko zenioke adiskide bati, bizikletaz seguruago ibil dadin?*

Oinezko gisa:

- *Oinezkoen igarobidetik zeharkatzen duzue kalea beti?*
- *Zuek beti errespetatzen duzue semaforoa?*
- *Zer gomendatuko zenioke adiskide bati, oinez seguruago ibil dadin?*

DIAGNOSTIKOA

2. Behatzen dut, beraz aztertzen dut!

Eranskinak:

- [*Behaketa taula.*](#)

Emitza:

Eskolaren inguruetan oinezkoek eta txirrindulariek dituzten bide jokabideak jasotzen dituzten grafikoak.

Argibide eta baliabide gehiago:

- [*Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*](#)

DIAGNOSTIKOA

3. Denbora

Izenburua:

Denbora

- Eskola curriculumeko arloak: Matematika - Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria - Airearen kutsadura.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Gure joan-etorrietarako erabiltzen dugun denboraz hausnartzea.
- ✓ Jakitun izatea denbora aldagai bat dela gure joan-etorriei dagozkien erabakiak hartzean eta garraiobidea aukeratzearan.
- ✓ Abiaduraren eta jasangarritasunaren arteko erlazioa identifikatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Euskal Autonomia Erkidegoan, kutsadura handia izan da hainbat urtez, zenbait eremutan industria eta biztanleak kontzentratu zirelako. Izan ere, horrek berekin

dakar isurpen handiak izatea, berokuntzak edota **ibilgailu motordunen trafikoak** sortuak.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

- *Zenbat denbora ematen dugu joan-etorrietan?*
Kalkula ezazu zenbat metro edo kilometro dauden zure etxetik eskolara?
- *Kronometra zaitetz , eta kalkula ezazu zenbat denbora ematen duzun etxetik eskolara etortzen, oinez etorrira (4 km / h), autoz etorrira (40 km / h), autobusez etorrira (30 km / h).*

- *Orain badakizu zenbat kilometro edo metro dauden zure etxetik eskolara. Bila ezazu Interneten, eta kalkula itzazu CO2 isurpenak, autoz etorrira, oinez etorrira eta autobusez etorrira. Gogoan izan: autobusean eta autoan, bidaiari kopuruarekin zatitu behar duzu.*

DIAGNOSTIKOA

3. Denbora

Nola egin:

- *Nola mugi daitezke bizkorrago, etxetik eskolara etortzeko?*
- *Zure ustez, zergatik dago bizkorrago joateko beharra? Polikiago joan gintezke?*
- *Zenbat denbora egoten da semaforoa berde, zenbat gorri?*
- *Nork du denbora gehien igarotzeko: oinezkoak ala autoak?*
- *Aurrez kalkulatu dituzun datuek diotenez, bizkorrago joateak CO2 gehiago sortzea dakar? Zure ustez, zein garraiobide da bizkorrena? Eta jasangarriena? Eta segurue-na?*

Eranskinak:

--

Emaita:

- Azken ondorioak:
- Garraiobide jasangarrienak motorgabeak dira, ez baitute CO2 isurtzen: hala nola oinez edota bizikletaz joatea.
 - Garraio kolektiboek abantaila ekonomiko eta ekologikoak dituzte, automobilen aldean.
 - Bizikletaz joatea bizkorragoa da oinez joatea baino, baina segurtasun urriagoa du.

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Berotegi efektuko gasen isurpena kalkulatzeko gida praktikoa.*
- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

DIAGNOSTIKOA

4. Bizikletentzako oztopo pista

Izenburua:

Bizikletentzako oztopo pista

- Eskola curriculumeko arloak: Matematika - Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Ibilbide ohikoenez jakitun izatea.
- ✓ Gure ibilbide ohikoenetan dauden eta ibilbide horiek bizikletaz egitea zailtzen duten oztopoak identifikatzea.
- ✓ Bizikletaz ibiltzea oztopatzen duten zailtasunak kentzeko aukerak proposatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Bizikleta garraiobide jasangarria da:

- **Abantailak:** Ez du kutsatzen, eta sasoian mantentzen zaitu. Hirian edo hiriguneetan mugitzeko, bizikleta eta patinetea dira garraiobide lasterrenak. Bizikleta merkea da, aparkatzen erraza, trafikoan ez ditu pilaketak eragiten, eta ez du zaratarik egiten (txirrina jotzen ez baduzu).

- **Eragozpenak:** Eragozpenik handiena segurtasunik eza da, baldin bizi garen herria behar bezala antolatuta ez badago bizikletak garraiobidetzat erabil daitezen. Bizikletaz seguruago ibiltzeko, babes ezazu zeure burua

kaskoarekin, belaunetakoekin eta ukondokoekin; aukera ezazu trafiko gutxi edo bidegorria duen ibilbide bat; erabil ezazu arropa eroso eta islatzailea; eta ibil zaitez arretaz.

Askotan, gure hirian bizikletaz ibiltzea oztopoz beteriko pista batean ibiltzea bezala da: aparkatutako autoak, irekitzen diren ateak, bidegorrian dabiltzan oinezkoak, sarbide baten erdian dagoen zaborrontzia, bizikletentzako aparkaleku falta.

DIAGNOSTIKOA

4. Bizikletentzako oztopo pista

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak ikasleei proposatuko die egin dezatela beren ohiko ibilbideen mapa. Horretarako, talde txikietan lan egingo dute. Talde bakoitzak mapa bat lortu behar du, hor bere ohiko ibilbideak markatzeko (adibidez: etxetik liburutegira, parketik aitona-amonen etxera, eta abar).

Ibilbideak identifikatutakoan, behaketako fase bat egingo dute. Ikasle bakoitzak galdera hauei erantzun-go die:

- *Zer garraiobide erabil ditzaket ibilbide hori egiteko?*
- *Ibilbide hori bizikletaz egin daiteke?*
- *Har ezazu bizkar zorro bat, papera eta bolaluma, eta egizu ibilbidea oinez edo bizikletaz. Idatz ezazu ibilbidean aurkitzen dituzun zailtasun guztiak, ibilbidea bizikletaz egitea oztopatzen dutenak (zaborrontziak, bide seinaleak, oinezkoen taldeak, eskailerak, espaloi estuak, gaizki aparkatutako autoak, malda gogorra, eta abar).*

Ikasgelara itzulita, ikasle guztiak talde handian bilduko dira, hezitzailea moderatzaile dutela, oztopoen berri emateko eta ranking bat egiteko (oztopoen zerrenda, ohikoenetik hasita bakanena deneraino).

Berriz ere ausaz banatuko ditugu ikasleak, talde txikietan. Talde txikietako bakoitzak gogoeta egin behar du zerrendako oztopo bati buruz:

- *Zertarako balio du?*
- *Hor egon behar du bere eginkizuna egiteko?*
- *Nola izan beharko litzateke, bizikletentzat oztopo ez izateko?*
- *Zer aukera asma ditzakegu, bizikleta erabiltzea eragozten digun oztopoak oztopo izateari utz diezaion?*

Bai ibilbideen mapa, bai oztopoen zerrenda, bai aldaketa proposamenak, udal arduradunei bidal diezazkiekegu.

DIAGNOSTIKOA

4. Bizikletentzako oztopo pista

Eranskinak:

--

Emitza:

Ibilbide ohikoenen mapa

Ibilbide horiek egiteko oztopoen rankinga

Oztopoak eta zailtasunak kentzeko proposamenak

Argibide eta baliabide gehiago:

Gasteizko espaloietan bizikletaz ibiltzearen debekuari buruzko artikulua.

- <http://www.elmundo.es/pais-vasco/2014/01/27/52e6b212e2704ebd7e8b458f.html>
- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

1. Bizikletak alokatzen ditugu

Izenburua:

Bizikletak alokatzen ditugu

- Eskola curriculumeko arloak: Matematika - Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Hirigintza - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Bizikleta baten ezaugarriak (mekanika, prezioa, motak, segurtasuna eta abar) hobeto ezagutzea.
- ✓ Garraibide jasangarria den aldetik, bizikleta erabil dadin sustatzea, bizikletak alokatzeko negozio bat sortuz.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Bizikletaz ibiltzea guztien onerako da: ez du kutsatzen, hiriko trafikoa hobetzen du, eta pertsonaren osasuna zaintzen du. Gizabanako guztiek bizikleta erabiltzeko aukera izan dezaten, badira alokatze zerbitzu ugari. He-

rrian halako zerbitzuren bat baldin bada, nola funtzionatzen duen iker dezakegu, eta zerbitzu paralelo bat sortu. Herrian halakorik ez bada, zerbitzu hori ezartzeko lehen urratsak egin ditzakegu.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak jardueraren lehen fasea aurkeztuko du, enpresa, negozio edo zerbitzu publiko baten planaren aurretiko ikerketatzat. Erantzunak aurkitzeko, Argibide eta baliabide gehiago atalean estekatutako dokumentuak erabil daitezke lagungarritzat.

Banaka edo talde txikietan, bizikletei buruzko galderei erantzungo diete:

- *Zenbat bizikleta mota daude?*
- *Zenbat balio du paseoko bizikleta batek? Zenbat kostatzen da alokatzea?*
- *Zenbat pisatzen du?*
- *Zein dira bizikleta batek behar dituen konponketa nagusiak?*
- *Zein da bizikletaz ibiltzeko jantzi egokiena?*

EKINTZA PLANA

1. Bizikletak alokatzen ditugu

Nola egin:

- Zein dira bizikletaz ibiltzeko segurtasun neurri nagusiak?

Ikerketa egindakoan, hezitzaileak ikasleei negozio plan bat sortzea proposatuko die, 20.000 euroren hasierako aurrekontuarekin. Ikasleek eranskinean doan negozio plana bete behar dute.

Era berean, triptiko bat sortuko dute. Horretarako, adibideren batean inspiratu ahalko dute, hala nola Bilboko

alokairu zerbitzuaren eskuorrian (Argibide eta baliabide gehiago atalean dago eskuorriaren esteka).

Eskuorriak argibide hauek jaso behar ditu:

- Zerbitzuaren oinarrizko funtzionamendu arauak
- Alokatzearen prezioa
- Bizikleta motaren deskribapena
- Zirkulazioko gomendioak
- Interes bereziko tokiak eta bidegorriak

Eranskinak:

- *Negozio planaren eredua*

Emaita:

Bizikletak alokatzeko negozio plana
Bizikletak alokatzeko zerbitzuaren triptikoa

Argibide eta baliabide gehiago:

- *http://www.bilbao.net/agenda21/pdf/bilbon_bizi_folleto.pdf*
- *Bizikleta segurtasunez erabiltzeko familia-gida.*
- *Bizikleta hirian.*
- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

2. Bidegorria

Izenburua:

Bidegorria

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Hirigintza - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Bidegorri bat diseinatzea.
- ✓ Bizikletaren erabilera sustatzea, garraiobide jasangarritzat.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Herri batean bidegorriak proposatzeko funtsezko alderdiak:

- Bidegorri bat galtzadako gainerakotik bereizteko, beste kolore bat erabil daiteke, adibidez; edo partekatua izan daiteke, baldin zolan dagokion seinalea jarrita badago.

- Bidegorriak bere erabiltzaileen segurtasuna bermatu behar du.

- Kontuan izan beharrekoak: maldak, trazadura eta galtzadaren zabalera.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak bidegorri bat diseinatzeko funtsezko alderdiak azalduko dizkie. Ikasleek, lehendabizi, herriko interes bereziko tokiak identifikatuko dituzte mapa batean (eskolak, lanerako gunek nagusiak, turismo eta kultura intereseko gunek, eta abar).

Ondoren, ikasleak taldetan banatuta, talde bakoitzak arkatz markatzaileekin ibilbide bat marraztuko du, interes bereziko toki horietatik bi lotzeko. Hezitzaileak zainduko du ibilbideak errepika ez daitezen.

EKINTZA PLANA

2. Bidegorria

Nola egin:

Ikasleek, ondoko paper orri batean, ibilbidea non hasten eta bukatzen den adieraziko dute, ibilbidea zer bide motatik egiten den (galtzada, galtzadarrizko kalea, espaloia eta abar), bizikletaz ibiltzeko izan daitezkeen oztopoak (trafiko handia, malda gogorra eta abar), eta kilometrotan eta minututan zenbat iraungo duen gutxi gorabehera.

Eranskinak:

--

Eraitza:

Bidegorrien ibilbideak dituen mapa
Ibilbide bakoitzaren ezaugarri nagusien kartelak edo zerrenda

Argibide eta baliabide gehiago:

- <http://moveuskadi.com/en-bicicleta-por-euskadi?lang=eu>
- <http://www.donostiamovilidad.com/eu/bizikletak/bidegorri-sarea/>
- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

3. Esperimentuak

Izenburua:

Esperimentuak

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Airearen kutsadura.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Airearen kutsaduraz kontzienteago izatea.
- ✓ Natura Zientzietako esperimentuak egitea.
- ✓ Airearen kutsadura txikiagotzeko ekintzak garatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Hurrengo jarduera Ingurugiro Etxea museoak proposatzen dituen jardueretatik atera dugu.

Airearen kutsadura da atmosferan materia, substantzia edo energia forma batzuk izatea, gizakien segurtasun edo osasunerako, ingurumenerako eta edonolako beste ondasunetarako eragozpen larria, arriskua edo kaltea dakartenak.

Kutsagarriak airean agertzen dira prozesu naturalen ondorioz (sumendiak, paduretako hartxidura eta abar) edota giza prozesuen ondorioz (industriak, ibilgailuen trafikoa, berogailuak...).

Horrelako kutsadura ez da agerikoa izaten batzuetan. Izan ere, zenbaitetan ez da ikusten, eta ezin da ukitu. Hala ere, arnastu egiten dugu, eta ondorio larria du orokorrean eta bakoitzarengan.

EKINTZA PLANA

3. Esperimentuak

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak ikasleei airearen kutsaduraren kontzeptua azalduko die, ideia jasa batetik abiatuta:

- *Zer hitz iradokitzen dizkizue «airearen kutsadura» izenak?*

Hezitzaileak arbelean idatziko ditu ikastaldeak esaten dizkion hitz guztiak. Hitzak biltzen minutu batzuk eman eta gero, hezitzaileak definizioa irakurriko du, eta arbelean definizioarekin bat datozen eta definizioari hurbiltzen zaizkion hitzak azpimarratuko ditu.

Hezitzaileak ikasleak bultzatuko ditu esperimentuen bitartez erakuts dezaten airearen kutsadura, nahiz eta ikusterik eta ukitzerik ez dagoen, existitzen dela egiazta daitekeela.

1. esperimentua. CO2 ekoiztea. Binaka, beirazko ontzi bat prestatuko dute, bikarbonato eta ozpin pixka bat, paper bat eta arkatz bat. Ondoren, bikarbonatoa eta ozpina nahasiko dituzte.

Paperean idatziko dute:

- *Zer gertatzen da gai horiek nahastean?*

- *Zer gas da burbuletakoa?*
- *Nolako usaina du?*

2. esperimentua. Ibilgailu baten ihes hodiko kutsadura. Materialak: metalezko iragazki handi bat, kotoia, pape-
ra eta arkatz bat.

Heldu baten laguntza beharko da.

Ipini kotoi puska bat iragazki handiaren barrenean. Eskatu helduari jar dezala iragazkia motorra martxan duen auto baten ihes hodian, une labur batez.

Iragazkia ez zaio gehiegi hurbildu behar ihes hodiari: izan ere, gasak oso bero ateratzen dira, eta karbono monoxidoa daukate, gas kaltegarri bat.

Paperean idatziko dute:

- *Nola geratu da iragazkiko kotoia?*
- *Nolako usaina du?*

Hezitzaileak galdera hauek egingo dizkie ikasleei:

EKINTZA PLANA

3. Esperimentuak

Nola egin:

ACTIVIDADES PARA LOS/LAS ESTUDIANTES:

- *Zuen ustez, zuen esperimentuekin asko ala gutxi kutsatu duzue?*

Nahiz eta gutxi kutsatu duten, egunero milaka pertsonak eta industriak kutsadura pixka bat sortzen dute bakoitzak; hori guztia batu egiten da, eta ASKO bihurtzen da.

Airearen kutsaduraren beste froga bat dira hirien gaineko kutsadurazko txapelak. Hezitzaileak, kontzeptu hori azaltzeko, Argibide eta baliabide gehiago atalean estekatutako bideoa erabil dezake lagungarritzat.

- *Zure eguneroko jardueretatik, zure ustez zein dira eragin hori sortzen laguntzen dutenak?*

- *Zuen hirian zer ondorio ditu airearen kutsadurak, zuen ustez? Aire kutsatuaren txapelak sortzen dira?*

- *Zuen osasunean zer ondorio ditu airearen kutsadurak, zuen ustez?*

Hezitzaileak horma-irudi bat prestatuko du, bi zutabe-ko taula batekin. Lehenengo zutabean ikasleek airearen kutsaduraren eragile nagusiak idatzi eta marraztuko dituzte (trafikoa, industria, eta abar), bai eta haien ondorioak ere (berotegi efektua, alergia, arnas arazoak, eta abar). Beste taldeak, berriz, eragilea saihesteko edo arazoari aurre egiteko ekintza bat edo batzuk idatziko ditu.

Eranskinak:

--

Eraitza:

Arazoak eta eman dakizkikeen konponbideak azaltzen dituen horma-irudia.

Argibide eta baliabide gehiago:

Ingurugiro Etxea museoa:

- <http://www.ingurugiroetxea.org/index.php/museo?Itemid=178>
- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

4. Ibilaldia bizikletaz

Izenburua:

Ibilaldia bizikletaz

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Aisia - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Bizikletaz egingo den ibilaldi bat antolatzea, bizikletaren erabilera sustatzeko.
- ✓ Bizikleta erabiltzean segurtasuna garrantzitsua dela ohartzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Kirol ekitaldiak antolatzeko, garrantzitsua da zenbait alderdi aintzat hartzea, hala nola:

- Ekitaldiaren izena eta martxaren ordena kronologikoa.
- Martxaren krokis zehatza (ibilbidea, profila, igarotze ordutegia, batezbestekoa).

- Parte-hartzaileen kopurua, gutxi gorabehera.
- Seinaleztatzeko neurrien eta segurtasun antolakuntza-
ren proposamenak.
- Gutxieneko osasun zerbitzuak (medikua eta anbulan-
tzia), parte-hartzaile guztien arretarako.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak ikasleei proposatuko die hirian zehar ibilaldi bat antolatzea (egun berezi batean izan daiteke, hala nola herriko jai nagusian edota mugikortasunaren astean).

Ikasleak arduratuko dira martxaren ibilbidea zehazteaz, kontuan hartuta ibilbide segurua izan behar duela (kale

bakoitzeko zirkulazioaren noranzkoa, noranzko debekatutakoak, bidegorriak, errepide zabalak edo trafikiko gutxiak...).

Ibilaldiaren kartela prestatuko dute, izena emateari, datari eta ordutegiari buruzko datuekin eta segurtasun gomendio batzuekin.

EKINTZA PLANA

4. Ibilaldia bizikletaz

Eranskinak:

--

Eraitza:

Ibilaldia, bizikletaz, hirian barrena.

**Argibide eta
baliabide gehiago:**

- *Kirol proba bat antolatzeke aurkeztu beharreko agiriak.*
- *Euskadiko Antolatzaileentzako Oinarrizko Gidoia.*
- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

5. Hondartzara bizikletaz

Izenburua:

Hondartzara bizikletaz

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Taldeko presioarekiko erresistentzia - Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Bizikletaz ibiltzeak dakarren arriskuaz ohartzea.
- ✓ Beharrezko segurtasun elementuak erabiltzearen beharra sumatzea.
- ✓ Erabakiak hartzeko prozesuaren aldagaitzat, taldearen presioa identifikatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Sarritan, bizikleta ariketa fisikoarekin eta jolas jarduerarekin erlazionatzen da. Nabarmenezkoa da jarduera hori hirian egiten badugu —nahiz galtzadan, nahiz espaloian—, jakitun izan behar dugula oso kaltebera den ibilgailu baten gidaritzat dugun arduraz.

Adin jakin batzuetan, taldean eta bizikletaz joanez gero, dilema batzuk edo hartu beharreko erabaki batzuk agertzen zaizkigu, ia automatikoki ebatzi beharrekoak, ea aukerarik seguruena, jasangarriena... den pentsatzeko asti handirik gabe.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak kasuari buruzko dokumentua banatuko die ikasleei. Ikasleek nork bere aldetik irakurriko dute, eta galderei erantzungo diete.

Ondoren, hezitzaileak ikasleak talde txikietan banatuko ditu, eta ikasleek erantzunak elkarri azalduko dizkiote, ezberdintasunak konparatzeko. Talde bakoitzak istorioaren bukaera berridatziko du eta ozenki irakurriko du.

EKINTZA PLANA

5. Hondartzara bizikletaz

Eranskinak:

- *Kasua: Hondartzara bizikletaz.*

Eraitza:

Bizikletaren erabilerari buruzko zenbait istorio.

**Argibide eta
baliabide gehiago:**

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

6. Adituen lantegia

Adituen lantegian, 3 – 6 ordu eskainiko dizkiogu aditu bati, mugikortasun seguruaren gai batzuetan sakondu dezan. Aditu horiek udaltzainak izan daitezke, edo mu-

gikortasuneko monitoreak; saio praktiko eta atseginak egingo dituzte, honekin batera doazen programazioen antzekoak.



EBALUAZIOA

1. Horma-irudiak

Izenburua:

Horma-irudiak

- Eskola curriculumeko arloak: Arte Hezkuntza.
- Agenda 21eko gaiak: Airearen kutsadura - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

✓ Programazioaren eragina ebaluatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Ebaluazio jarduera honetan sortutako kartelak hasierako diagnosi kartel eta zerrendekin konparatuko ditugu.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Talde txikietan, kartelak eta horma-irudiak egingo dituzte:

- Airearen kutsadura murrizteko proposamenak jasotzen dituen kartela.
- Bizikleta erabil dadin sustatzeko proposamenak jasotzen dituen kartela.
- Txirrindulari eta oinezkoentzako proposamenak jasotzen dituen kartela.

- Nolakoa litzatekeen hiria inork presarik ez balu eta guztioz nahi duguna egiteko astia izango bagenu.

Programazioan erabilitako kartel, marrazki, argazki eta mapetako materiala birzikla dezakete ikasleek.

EBALUAZIOA

1. Horma-irudiak

Eranskinak:

--

Emitza:

Ekintzak azaltzen dituzten kartelak eta horma-irudiak.

**Argibide eta
baliabide gehiago:**

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EBALUAZIOA

2. Trukea

Izenburua:

Trukea

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia - Arreta - Egokitzapena eta malgutasuna - Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

✓ Programazioaren eragina ebaluatzea

Nola egin:

Gomendatzen dizugu zure ikastaldearekin egin duzun lana trukatzeko eta zabaltzeko ekintzak egin ditzazula.

Hona hemen zenbait ideia:

- Erakuts itzazue ikastetxean egindako kartel eta horma-irudiak.
- Jar zaitetz harremanetan ikastetxe bereko bosgarren eta

seigarren mailetako beste ikastaldearen irakasleekin, eta konpara itzazue ondorioak.

- Truka itzazu ondorioak ardatz bera egin duten beste eskoletako ikastaldeekin.
- Helaraz iezazkiozu ondorioak Udalari.
- Jakinaraz iezazkiezu ondorioak gurasoei.

Eranskinak:

--

Eraitza:

Hezkuntza komunitateko eta udalerriko gainerako kideekin bilerak eta batzarrak egitea.

Argibide eta baliabide gehiago:

- [Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.](#)

ERANSKINAK

Sentiberatzea

75. autobusa (egilea: Gianni Rodari).

75. autobusa (egilea: Gianni Rodari).

Goiz batean, 75. autobusa, Monteverde Vecchiotik Piazza Fiumeraino doana, Trasteveretik igaro beharrean Gianicolotik pasatu zen, Via Aurelia Antican biratu zuen, eta minutu batzuk geroago Erromako aldirietako belardien artean lasterka zihoan, oporretan erbia bezala.

Ordu hartan, ia bidaiari guztiak bulegariak ziren eta egunkaria irakurtzen zuten, baita erosi ez zutenek ere, ondoan eseritakoari bizkar gainetik irakurrita. Gizon batek, orrialdea pasatzean, begiak altxatu zituen une batez, kalera begiratu zuen eta oihuka hasi zen:

—Kobratzaile, zer gertatzen da, baina? Traizioa, traizioa! Beste bidaiariek ere begiak egunkaritik jaso zituzten, eta protestak koru zaratatsu bihurtu ziren:

—Hemendik Civitavecchiara joaten da!

—Zer egiten du gidariak, baina?

—Erotu egin da, lotu ezazue!

—A zer nolako zerbitzu publikoa!

—Bederatziak hamar gutxi dira, eta bederatzietan puntuan Justizia jauregian izan behar dut! —oihu egin zuen abokatu batek—. Prozesua galtzen badut, auzitara eramango dut konpainia.

Kobratzailea eta txoferra bidaiariak lasaitzen saiatu ziren, eurek ezer ez zekitela esanez, autobusak ez ziela

aginteei kasu egiten eta nahi zuena egiten ari zela. Une hartan autobusa bidetik irten zen, eta basotxo fresko eta lurrindu baten sarreran gelditu zen.

—O, txerri-ogiak! —deiar dar egin zuen, pozik, andre batek.

—Orain ez da txerri-ogietan pentsatzeko unea —egin zuen protesta abokatuak.

—Berdin dio —adierazi zuen andreak—, berandu iritsiko naiz ministeriora eta errieta egingo didate, baina berdin dit, eta hemen nagoenez txerri-ogiak biltzen gozatu nahi dut. Gutxienez izango dira hamar urte halakorik egiten ez nuela.

Autobusetik jaitsi zen, ahoa zabalik goiz bitxi hartako airea arnastuz, eta txerri-ogien sortatxo bat biltzeari ekin zion.

Ikusita autobusak itzultzeko batere asmorik ez zuela, bidaiariak banan-banan jaitsiz joan ziren, zangoak

luzatzera edo zigarreta erretzera. Aldi berean, haien umore txarra desagertzen zen, lainoa eguzkitan bezala. Batek bitxilore bat hartu eta botoi zuloan jartzen zuen; beste batek oraindik heldu gabeko marrubi bat aurkitu eta garrasi egiten zuen.

—Nik aurkitu dut. Hemen utziko dut nire txartela, eta marrubia heldutakoan jasotzera etorriko naiz, eta hobe izango da hemen aurkitzea.

Eta, halaxe, txartel bat atera zuen diru zorrotik, zotz batekin zeharkatu zuen, eta zotza marrubiaren ondoan iltzatu zuen. Txartelak hauxe zioen: «Julio Pikortatxoak doktorea».

Eskolatze Ministerioko bi enplegatuk pilota bat egin zuten beren aldizkariekin, eta futbol partida jokatzen hasi ziren. Eta pilotari ostikoa ematen zioten aldiro, oihu egiten zuten:

—Pikutara!

75. autobusa (egilea: Gianni Rodari).

Azken batean, ez ziruditen lehentxoago autobus konpainiako enplegatuak egurtu nahi zituzten bulegari berak. Autobus konpainiako langileek, berriz, arrautzopil bat banatua zuten beren artean, eta piknika egiten ari ziren belardian.

—Adi! —oihu egin zuen gero bat-batean abokatuak.

Autobusa, astinaldi bat eginda, bazihoan bakarrik, pixkanaka. Doi-doi izan zuten igotzeko denbora. Azke-

na, txerri-ogien andrea izan zen, protestaka:

—E, horrek ez du balio! Apenas hasia nintzen dibertitzen.

—Zer ordu da? —galdetu zuen batek.

—Uf, oso berandu izango da!

Eta nork bere eskumuturrari begiratu zion. Ustekabea: erlojuetan bederatziak hamar gutxi zirela ageri zen oraindik. Antza denez, txangoak iraun zuen denboran, ordu-

larien orratzak ez ziren mugitu. Eskupeko denbora izan zen, gehigarri txiki bat, hala nola xaboi hautsaren pakete bat erosita barruan jostailu bat aurkitzen denean.

—Hau ez daiteke izan, orde! —zioen, harrituta, txerri-ogien andreak, autobusa dagoeneko bere ohiko ibilbide-tik zihoala eta Dandolo kalean aurrera arin zebilela.

Guztiak txundituta geratu ziren. Berriz ere begien aurrean zuten egunkariaren goialdean, baina, argi eta garbi zegoen idatzita egun hartako data: martxoaren 21a. Eta dena da posible udaberriko lehen egunean.

ERANSKINAK

Diagnostikoa

Argazkia



ERANSKINAK

Diagnostikoa

Behaketa taula

TALDEA: _____

TOKIA: _____

Oinezkoak semaforoa errespetatu du (berde zegoela zeharkatu du, eta gorri zegoela gelditu da).

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BAI										
EZ										

Oinezkoa oinezkoen igarobidetik pasatu da (bi alboetarantz begira, diagonalean zeharkatu gabe, eta abar).

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BAI										
EZ										

Txirrindulariak semaforoa errespetatu du (berde zegoela egin du aurrera, eta gorri zegoela gelditu da).

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BAI										
EZ										

ERANSKINAK

Diagnostikoa

Behaketa taula

Oinezkorik baldin bada, bizikleta gelditu egiten da oinezkoen igarobidean, oinezkoak pasa daitezen.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BAI										
EZ										

Txirrindulariek kaskoa daramate.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BAI										
EZ										

Txirrindulariak ez du zirkulazioko araurik hautsi (ez du mugikorretik hitz egiten, ez da bere bidetik atera, eta abar).

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BAI										
EZ										

Bizikletak errepidetik dabilta.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BAI										
EZ										

ERANSKINAK

Ekintza plana

Negozio planaren eredua

NEGOZIOAREN IZENA	
PARTE-HARTZAILEAK	• • • • •
Zuen negozio planaren HELBURUAK (zer alokatzen duzuen eta zergatik egiten duzuen)	• • •

ERANSKINAK

Ekintza plana

Negozio planaren eredua

KOSTUAK

ZENBAT BIZIKLETA EROSIKO DITUZUE, ALOKATZEKO? ZER PREZIOTAN EROSIKO DITUZUE?	Adieraz ezazu bizikleta bakoitzaren prezioa: Biderkatu bizikleta kopuruarekin: Idatzi zenbat den guztira:
NON DAGO ALOKAIRU ZERBITZUAREN LOKALA? ZENBAT KOSTATZEN DA LOKALA? LANGILEREN BAT BA AL DA JENDEARI ARRETA EGITEN? ZENBAT KOB RATZEN DU HILEAN?	Idatz ezazu lokalaren hileko gastua: Idatzi langilearen hileko soldata: Idatzi zenbat den guztira:
ZENBAT INFORMAZIO TRIPTIKO INPRIMATUKO DITUZUE? ZENBAT KOSTATZEN DA INPRIMATZEA?	Idatzi inprimatzearen prezioa: Biderkatu ale kopuruarekin: Idatzi zenbat den guztira:
BATU ITZAZU ZURE NEGOZIOAREN KOSTUAK	Idatzi kostuak zenbat diren guztira:

ERANSKINAK

Ekintza plana

Negozio planaren eredua

DIRU SARRERAK

ZENBAT KOSTATUKO DA BIZIKLETA BAT EGUN BATEZ ALOKATZEA? ZUEN USTEZ ZENBAT BIZIKLETA ALOKATUKO DITUZUE EGUNEAN?	Adieraz ezazu alokatze bakoitzaren prezioa: Biderkatu alokatze kopuruarekin: Eta biderkatu 30 egunekin: Idatzi zenbat den guztira:
BESTE DIRU ITURRIRIK IZANGO DUZUE? BIZIKLETETAN EDO TRIPTIKOAN PUBLIZITATEA JARRIKO DUZUE? HILEAN ZENBAT DIRU LOR DEZAKEZUE PUBLIZITATEAN?	Apunta el total
BATU ITZAZU ZURE NEGOZIOAREN DIRU SARRERAK	Idatzi diru sarrerak zenbat diren guztira:

KALKULA ITZAZU DIRU IRABAZIAK:

Hasierako aurrekontua	20.000 €
Kendu kostuak	-€
Batu diru sarrerak	+€
Irabaziak, guztira	€

ERANSKINAK

Ekintza plana

Negozio planaren eredua

Esplika itzazu, labur, ekonomikoak ez diren zure negozio planeko irabaziak (ingurumena, osasuna, eta abar):

ERANSKINAK

Ekintza plana

Hondartzara bizikletaz

Unai hamaika urte ditu eta Hondarribiko aldirietan bizi da. Hala Unai nola haren adiskideei izugarri gustatzen zaie hondartzara eta portura arrantzara eta eguna pasatzera joatea, bereziki udan. Uda honetan lehendabizikoz guztiek dute gurasoen baimena, hondartzara bizikletaz joateko. Hala ere, baldintza batzuk jarri dizkiete:

- Jar ezazue kaskoa
- Ez ezazue astoarena egin
- Ez itzazue zeharkatu trafikoko handiko errepideak
- Ez itzazue entzungailuak jarrita eraman
- Eta oroitzen ez duten zerrenda luze bat...

Azkenean heldu zen lehenengo eguna! Unai adiskideekin elkartzekotan geratu zen, hondartzara bizikletaz joateko. Arrantzarako kanabera eta bizikleta hartuta, erritmo onean

ekin zion pedalei eragiteari. Adiskideekin pasealekuan elkartzekotan zen, gero guztiak elkarrekin arrantzarako txoko egoki baten bila joateko. Eta hantxe bildu ziren, baina iritsi bezain laster guztiek aurpegi arraroarekin begiratu zioten.

—Unai, nora zoaz hain kasko barregarriarekin, eta gainera bizkar zorrorik gabe? Ez al duzu egun osoan ezer jateko eta edateko asmorik? Edota kasko hori jan egiten da eta gainera arraintzako amu gisa balio du? —eta guztiek barreari eman zioten.

Unai ahaztuta utzia zuen bizkar zorroa, eta protestarik gabe kasu egin zien gurasoei, handiagoa baitzen hondartzara bizikletaz joan ahal izatearen poza.

—Mugi zaitez, zoaz berriro etxera bizkar zorroaren bila, eta utz ezazu buruan daramazun hori. Pixka batean itxarongo

dizugu, baina zabiltza bizkor —oihu egin zion adiskideetako batek.

Unai arrantzarako kanabera utzi zien, eta tximistaren gisan abiatu zen etxerantz. Bidean, errepide nagusitik igotzea erabaki zuen, bizkorragoa zelako eta, kaskoa jantzita zeramanez, hain arriskutsua ez zela izango iruditu zitzaiolako. Etxera heldu zen, bizkar zorroa hartu zuen eta kaskoa utzi zuen, ohepean ezkutatuta. Zitzu bizian itzuli zen hondartzarantz, biderik lasterrena hartuta. Errepidean iristean, trafikoa hain trinkoa zen, geldituta zegoen bi noranzkoetan. Arnasa hartuta, errepidea zeharkatu zuen. Bestaldera iristean, bidearen albotik zetorren motozale batek balaztatu eta ozta-ozta saihestu zuen Unai. Unai zurbil heldu zen hondartzara, dardarka, bizkar zorroarekin eta kaskorik gabe.

Galderak:

- *Zer jokabide seguru izan zituen Unai? Eta zer jokabide ez-seguru?*
- *Zure ustez zergatik ez zituen bete gurasoen aginduak?*
- *Uste duzu Unai konturatzen zela bizikletaz joatearen arriskuaz? Eta errepidea zeharkatzeaz?*
- *Zer egin zezakeen Unai istripu arriskua txikiagoa izateko?*
- *Uste duzu Unairen adiskideak jakitun zirela bizikletaz ibiltzeko nahitaezkoa dela kaskoa?*
- *Uste duzu Unai adiskideek eragin diotela erabakiak hartzean?*
- *Antzeko egoeraren batean izan zara inoiz?*

MATERIAL HAU EGIN DUTE:

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

formaccio



SIGNOS DE IDENTIDAD
Consultores de Imagen & Comunicación